

Abarak

UNAI BREA

Breizheko aire zahar-modernoak, euskal ukitu batekin

Troiou Kaer/Des Aventures. Dremmwel.
Keltia Musique. 43 minutu. 2011.

BREITAINIAKO musika talderik ospetsuenetakoa da Dremmwel. Bost urtean behin kaleratzen dute disko bat, eta aurreten tokatzen zitzaien, mende laurdena bete berri dute eta. Emaitza *Troiou Kaer/Des Aventures* da, labetik atera berri dagoen lana. Bertan aurkituko duenaren lehen aztarna diskoetxearen izenak emango dio entzuleari: Keltia Musique. Doinu tradizional bretoiak dira Dremmwelen musikaren oinarria; hortik abiatuta, ausartzen dira beste estilo batzuk jorratzen. Nahasteak europar musika zaharra-



INGRID KUSCHICK-EK UTZIA

ren zaporea du zalantzarik gabe, baina ñabardura askorekin. Nik neuk, bederen, folk progresiboaren eremuan kokatuko nituzke kantetako asko; behin baino gehiagotan ekarri didate gogora Jethro Tull talde britainiar handia.

“Kanta” diot, baina kantatu, gutxi kantatzen da *Troiou Kaer* honetan. Pieza guztiak instrumentalak dira hiru izan ezik, eta horietatik batek euskarazkoak ditu hitzak. Boskote bretoiak ez dio hutsik egin, oraingoan ere, beste lurralde batzuetako artistekin kolaboratzeko ohiturari. Hala, euskal musikariekin egindako elkarlanaren fruitua da diskoaren hamabigarren kanta, azkena, eta denetan esperimentalena. Baina tradizioa oinarri, hemen ere: Josu Goiriren gidaritzapean aritu da diskoko euskal “sezkioa”, eta bizkaitarrak, ohi duenez, txalapartaren inguruan gorpuztu du bere lana. Garazi Abrisketak eta Garazi Irazabalek jarri dute ahotsa, eta Aritz Irazabal aizkolariak, zer eta aizkora. Doinua esperimentalta izanagatik, burura datorkidan adjektiboa “arakaioa” da. Ederra ere bai. ■

publizitatea

Eremu urriko hizkuntzen babesari buruzko liburua kalean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz* liburua aurkeztu zuen aurreko ostegunean Eusko Jaurlaritzan. Liburuaren jatorrizko edizioa ingelesez argitaratu zen. Orain euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da, euskal herritarrentzat erreferente izan dadin. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aurreko garaiak, Gutunaren garapena bera eta etorkizunera begirako erronkak aztertzen dira liburuan.

“Askotan ez gara konturatzen euskara ez dagoela bakarrik munduan. Europan bertan hizkuntza asko daudela antzeko egoeran. Badaudela erakunde eta itun batzuk haren alde dihardutenak”. Halaxe azaldu zuen Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak liburua aurkezteko egindako agerraldian.



MUNDUORO
euskaraz